DAGOKIONARI

Denbora geldirik dago. Esan guri, bestela. Berdin da noiz noiz begiratzen diozun udaletxeko erlojuari; beti ordu bera markatuko dizu. Bitatik bat: konpondu eta ordua zuzen ematen hasten da ala,dagoen bezala utziz, lezoarrak ez gara sekulan zahartuko.

Orduak beti zuzen seinalatuko dizkigun erloju bat nahi dugu eta ez egunean bi aldiz bakarrik zuzen emango duena.

Udaletxea konponketetan dagoela ta ez da nahiko aitzakia, konponketak hasi baino lehen ere markatzen bait zituen bederatzi t´erdiak.

Ez da harritzeko izango aurrerantzean Lezo herri "paratu" bat dela esaten jarraitzen badute.

.....

Kale Nagusiko 12. zenbakia. Bada hori botatzeko edo bertan zerbait egiteko garaia. Erortzen hasia da, eta dagoen dagoenean, arratoiak eta zikinkeriak sortzeko besterik ez du balio.

Eskerrak Pasamontesen ondoan zegoen estalpea botatzeagatik, istripuren bat gerta bait zitekeen bestela.

.....

Norbaitek ez al daki gure errekak kutsatuak daudenik? Ba, Zubitxoko errekari galde biezaio. Gainera, galdetu beharrik ere ez du, aski bait du begirada bat ematea. Agerian ikusiko ditu ur gainean, Kolonen antzera, bizikleten erruedak, kaltzontzilo zaharrak, zakar poltsak... eta beste zenbait zerrikeria surrealista. Eta, "Aceros Corrugados" orain gelditurik badago, nork egiten ditu gisa horretako "apainketak"?.

.....

Ekolojistek, udaletxe kaskar honetatik pezeta bat ere ez jasotzeaz gain, beren izerdiaz lortu duten mintegia lantzeko tresnak (udaletxeak beraientzat erosiak) eskuratzean, udaletxeko bati eta besteri baimen eske ibili beharra daukate, denbora alferrik galduz. Eta hau gutxi balitz, tresnok -behin erabilita gero- udaletxera itzuli behar dituzte (kontutan har delako mintegia Elortegi inguruan dagoela eta joanetorriek alferrikako neke bat suposatzen dietela).

Buka, mesedez, lehenbaitlehen horrenbesteko burokraziarekin eta eman Lezoko ekolojistei mintegian bertan etxol koskor batetan tresna horiek gordetzeko baimena. Mesedez diot!

.....

Bota dute CROMA. Bertan futbol zelai bat egingo omen dute. Hala bada gure zorionik beroenak, eta ez bada, kutsagarri bat gutxiago dugu Lezon, behinik behin. Ordua da ere "Eskabetxeriak" bide berdina har dezan, kutsatzen ez duen arren alferrik bait dago.

.....

"Bide ezaugarriak zertarako?, garbi ezazu norbait" esaera dela dirudi jende askoren pentsaera, kotxez nola dabiltzan ikusirik."Pasada" bat da, horrenbeste seinal alferrik izatea! Zoazte, adibidez, Jaizkibel ibilpidera eta ohartuko zarete. neska-mutikoak eskolatik datozenean, hor dabiltza kotxeak martxa bizian.

Istripu larri bat gertatu baino lehen, pentsa dezagun autogidari guztiok. Eta, agian, Lezoko zenbait tokitan komenigarriak lirateke semaforoak...

.....